



ardatz

Gobernantzaren. Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030 Plan Estratégico de Gobernanza, Innovación Pública y Gobierno Digital 2030

Nahitaez erabili beharreko tresna komunak (91/2023 Dekretua)

(V_2024_01)

Zer eskaintzen die Platea/Tramitagune Administrazio Elektronikoaren Plataformak Eusko Jaurlaritzako sailei?

Platea/Tramitagune Plataformaren gauzarik nabarmenena da lantaldeen betekizunen arabera eraiki dela. Lantalde horietako gehienak sailetako aholkularitza juridikoen ordezkariak eta prozedura-familiako kudeatzaile kualifikatuek (laguntzak, baimenak, erregistroak, erreklamazioak, salaketak, zehapenak, etab.) osatzen dituzte, eta osotasuna eta segurtasun juridikoa ematen diete plataforma osatzen duten kide guztiei.

Baina, batez ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Herritarrei Arreta Integrala eta Kanal Anitzekoa Emateko eta Zerbitzu Publikoak Bitarteko Elektronikoen Bidez Eskuratzeko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan ezarritako betebeharrak betetzen direla bermatu da.

Administrazio elektronikoaren zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabiltzekoak, Platea/Tramitagune plataforman eskuragarri daudenak

Administrazio elektronikoaren zerbitzu eta azpiegitura komunak:

- izaera korporatiboa eta zeharkakoa duten antolaketa- eta teknika-osagaiak dira, beren laguntza-gobernantza operatiboarekin batera, herritarrekiko harremanetarako kanal elektronikoari euskarria ematen diotenak,
- erabiltzaileen premia komunak asetzen dituzte,
- elkarreragingarritasuna, segurtasuna, eskala-ekonomiak, arrazionalizazioa eta administrazio-jarduna sinplifikatzea errazten dute.

Administrazio elektronikoaren zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabiltzekoak, Platea/Tramitagune plataforman eskuragarri daudenak

Gaur egun, administrazio elektronikoaren zerbitzu eta azpiegitura komun hauek daude eskuragarri:

Administrazio elektronikoaren zerbitzu eta azpiegitura komunak	
1.- Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa (ZPKK)	2.- Prozeduren fitxak euskadi.eus atarian
3.- Prozedurak Konfiguratzeko Katalogoa (PKK)	4.- Identifikazioa eta sinadura elektronikoa
5.- Erregistro Elektronikoa Orokorra (EEO)	6.- Formulario elektronikoen <i>toolkita</i>
7.- Izapideen kudeatzailea (Tramitagune)	8.- Herritarren karpeta - Nire karpeta
9.- Jakinarazpen elektronikoa	10.- Ziurtagiri elektronikoa
11.- Artxibo elektronikoa bakarria	12.- Ordainketa-pasabidea - Nire ordainketa
13.- Dokumentuak egiaztatzeko zerbitzua	14.- Iragarki-taula elektronikoa
15.- Ahalordeen Erregistro Elektronikoa (AEE)	16.- Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa
17.- Postontzi Elektronikoa Orokorra	18.- Datuen Bitartekaritza Zerbitzua - NISAE
19.- Dokumentuak segurtasunez digitalizatzeko osagarria	20.- Zerbitzu publikoen erabiltzaileen datu-base korporatiboa

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

1.- Zerbitzuen Katalogoa (ZK)

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
1.- Zerbitzuen Katalogoa (ZK)	<p>Zerbitzuak eta prozedurak digitalizatzeko prozesuak parametrizatzeko oinarritzko informazioa dauka.</p> <p>Azpiegitura komun guztiak konektatzeko funtsezko pieza da: ahalordeen erregistroa, artxibo digital bakarra, elkarreragingarritasuneko zerbitzuak.</p> <p>Katalogo hau (ZK) elkarreragingarria da Espainiako Administrazio Informazioko Sistemarekin (AIS)</p>	<p>Digitalizazio Planaren jarraipena egitea baimentzen du.</p> <p>Izapidetze-fluxuen parametrizazio-zerbitzuekin, elkarreragingarritasuneko zerbitzuekin, ahalordeen erregistroarekin, gaitutako funtzionarioen erregistroarekin, artxibo elektroniko bakarrekin, herritarren karpetaekin eta abarrekin konektatzen du.</p>	<p>Zerbitzuen Katalogoa tresna erabiltzeko, erabiltzaileak alta eman behar du.</p> <p>Alta eskatzeko, sailetako solaskide informatikariengana jo behar da, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalakotako Zuzendaritzari (HAZEDI) zuzentzeko</p>	<p>Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalakotako Zuzendaritza (HAZEDI) da Zerbitzuen Katalogoaren azpiegituraren arduraduna.</p> <p>Sailak arduratzen dira beren zerbitzu eta prozeduretan alta emateaz eta eguneratzeaz, bai eta izapidetze elektronikoaren 4. maila lortzeaz ere.</p>

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

2.- Prozeduren fitxak euskadi.eus atarian

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
2.- Prozeduren fitxak euskadi.eus atarian	Zerbitzu eta prozedura bakoitzaren xedeari, hartzaileei, araudiari eta abarri buruzko informazio estandarizatua eskaintzen du (hizkera argian eta erraz irakurtzeko moduan).	Formulario elektronikoko normalizatuak eskuratzeko aukera ematen du, bai aurrez aurreko izapideetarako, bai izapidetze elektronikorako. Egoitza elektronikokoan herritarrei eskaintako informazioa estandarizatzea	Web-edukiak kudeatzeko aplikazioaren erabiltzaileak alta eman behar du. Alta eskatzeko sailetako solaskide informatikariengana jo behar da, HAZEDIr zuzentzeko.	HAZEDI da edukien kudeatzailearen azpiegituraren eta fitxen diseinuaren arduraduna. Saitei dagokie beren fitxa oro sortzea, argitaratzea eta eguneratzea.

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

3.- Prozedurak Konfiguratzeko Katalogoa (PKK)

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
3.- Prozedurak Konfiguratzeko Katalogoa (PKK)	Zerbitzuen eta prozeduren izapideen parametrizazioa ahalbidetzen du. Honakoak definitzen ditu: izapide-fluxuak, aurkeztu beharreko dokumentuak, kontsumituko den elkarreragingarritasuna eta abar.	Izapidetze-fluxuei dagozkien XMLak eraikitzea errazten du.	Tresna hori erabiltzea sailetako laguntza teknikoan garatzaileei dagokie.	EJIE da azpiegituraren arduraduna. Asistentzia teknikoari dagokie beren zerbitzuak/prozedurak parametrizatzea.

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

4.- Identifikazioa eta sinadura elektronikoa

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
4.- Identifikazioa eta sinadura elektronikoa	Pertsona fisikoak eta juridikoak modu frogagarrian identifikatzen ditu izapidetze elektronikoa, 39/2015 Legearen zehaztapenen arabera.	Sinadura elektronikoaren berme juridikoa eskaintzen du (autentifikazioa, integritatea eta ez gaitzestea).	Platea/Tramitagune plataforman eraikitzen diren zerbitzu/prozedura guztiek dute funtzionaltasun hori.	<p>Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak sinadura-politika onartu behar du.</p> <p>Izenpe da identifikazioaren eta sinadura elektronikoaren azpiegituraren arduraduna.</p> <p>Sailek sinadura-politika aplikatu behar diete beren zerbitzu eta prozedurei.</p>

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

5.- Erregistro Elektronikoa Orokorra (EEO)

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
5.- Erregistro Elektronikoa Orokorra (EEO)	<p>EAEko Administrazio Orokor osoan jasotzen eta igortzen den dokumentu, eskaera, idazki eta komunikazio orori dagokion erregistro-idazpena egiteko aukera ematen du.</p> <p>EEO bakarra dago Administrazio Orokorreko eta administrazio instituzionaleko organo guztientzat, bai eta bere sektore publikoko gainerako organoentzat ere.</p> <p>OHARRA: oso gutxi erabili beharko litzateke, zerbitzu eta prozedura guztiak ZKn alta emanda baleude eta digitalizazioko 4. maila balute.</p>	Gai jakin batean etengabe erabiltzen bada, dagokion zerbitzuak/prozedurak digitalizaziorik ez duela identifikatzeko balio du.	Zerbitzu hau egoitza elektronikoan dago, sail eta erakunde autonomo guztientzat eskuragarri.	<p>Herritarrek Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza (HAZEDI) da Erregistro Elektronikoa Orokorren (EEO) azpiegituraren arduraduna.</p> <p>Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuak erregistro-idazpenak banatzen dizkie sailei, eta, gero, haiek kudeatzen dituzte erregistro-idazpenak.</p>

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

6.- Formulario elektronikoen *toolkita*

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
6.- Formulario elektronikoen <i>toolkita</i>	Eskabideen formulario elektronikoa guztiak estandarizatzeko tresna, bai aurrez aurreko izapideetarako, bai izapidetze elektronikorako.	Edozein formulario betetzea errazten du, guztietan urrats berak egiten direlako (identifikazioa, datuen babesa, datuen bilketa, baimenak, elkarreragingarritasuneko zerbitzuak, erantzukizunpeko adierazpenak, dokumentazioa, sinadura eta bidalketa).	Platea/Tramitagune plataforman eraikitzen diren zerbitzu/prozedura guztiek dute funtzionaltasun hori.	HAZEDI da formulario elektronikoen <i>toolkitaren</i> azpiegituraren arduraduna. Sail bakoitzaren ardura da bere eskabide-formulario elektronikoak diseinatzea.

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

7.- Izapideen kudeatzailea (Tramitagune)

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
7.- Izapideen kudeatzailea (Tramitagune)	Espediente elektronikoa izapidetze-fase bakoitzean kudeatzeko aukera ematen du (hasiera, zuzenketa, bideratzea, ebazpena, errekurtsioa, etab.).	Administrazio-prozedura behar bezala betetzen dela ziurtatzen dugu, espediente elektronikoa sortzen denetik ixten denera eta artxibo digital bakarrean artxibatzen denera arte.	Platea/Tramitagune plataforman eraikitzen diren zerbitzu/prozedura guztiek dute funtzionaltasun hori.	HAZEDI da izapideen kudeatzailearen (Tramitagune) azpiegituraren arduraduna. Sailek beren espediente elektronikoak kudeatu behar dituzte, hasierako fasetik hasi eta ixteko eta artxibatzeko faseraino.

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

8.- Herritarren karpeta – Nire karpeta

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
8.- Herritarren karpeta – Nire karpeta	Honako hauek egiteko aukera ematen du: espedienteen izapidetze-egoeraren jarraipena egiteko, dokumentuak aurkezteko, alegazioak eta/edo errekursoak aurkezteko, Administrazioak sortutako edo herritarrek ekarritako dokumentuen kopiai lortzeko. Gainera, Nire Karpetatik, jakinarazpen eta ziurtagiri elektronikoetara sartzen da.	Espedienteak izapidetzeko faseetan izandako aurrerapenak automatikoki agertzen dira herritarren karpetan, Nire Karpetan. Hala, espediente elektroniko guztiek espedientei buruzko informazio estandarizatua eta normalizatua eskaintzen diete herritarrei.	Platea/Tramitagune plataforman eraikitzen diren zerbitzu/prozedura guztiek dute funtzionaltasun hori.	HAZEDI da Herritarren Karpeta – Nire Karpeta azpiegituraren arduraduna. Sailak dira espediente elektronikoak izapide-kudeatzailean (Tramitagune) behar bezala izapidetzeaz arduratzen direnak.

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

9.- Jakinarazpen elektronikoa

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
9.- Jakinarazpen elektronikoa	Aukera ematen du jakinarazpen elektronikoak berme juridiko guztiekin egiteko. Gainera, posta-jakinarazpen guztiak ere jakinarazpen elektronikoaren sarrera-ontzian agertuko dira.	Espediente elektronikoa izapidetzen duen pertsonak bere jakinarazpen elektronikoak egiteko berme juridiko guztiak ditu. Jakinarazpen elektroniko guztiak modu estandarizatuan formalizatzen dira.	Platea/Tramitagune plataforman eraikitzen diren zerbitzu/prozedura guztiek dute funtzionaltasun hori.	HAZEDI da azpiegituraren arduraduna. Sailak dira jakinarazpenak behar bezala gauzatzearen arduradunak.

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

10.- Ziurtagiri elektronikoak

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
10.- Ziurtagiri elektronikoak	Aukera ematen du ziurtapen elektronikoak berme juridiko guztiekin egiteko.	Espediente elektronikoa izapidetzen duen pertsonak ziurtapen elektronikoak egiteko berme juridiko guztiak ditu, zeinak modu estandarizatuan egiten baitira.	Platea/Tramitagune plataforman eraikitzen diren zerbitzu/prozedura guztiek dute funtzionaltasun hori.	HAZEDI da azpiegituraren arduraduna. Sailen ardura da ziurtagiri elektronikoak behar bezala ematea.

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

11.- Artxibo elektronikoa bakarra

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
11.- Artxibo elektronikoa bakarra	Administrazio-jarduketan erabilitako espediente eta dokumentu guztiak Artxibo Elektroniko Bakarrean gordetzen dira, bitarteko elektronikoen bidez.	Zerbitzuaren/prozeduraren izapidegileak bere dokumentu elektronikoak behar bezala gorde eta zaintzeko berme juridiko guztiak ditu. Nahitaezkoa da espedienteak epe barruan ixtea eta EAEko sektore publikoaren artxibo-sisteman artxibatzea, Artxiboa Kudeatzeko Sistema (AKS/SGA) erabiliz.	Platea/Tramitagune plataforman eraikitzen diren zerbitzu/prozedura guztiek dute funtzionaltasun hori.	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak dokumentuak kudeatzeko politika onartu du. Baliabide Orokorren Zuzendaritza eta HAZEDI dira azpiegituraren arduradunak. Sailak dira beren dokumentuak behar bezala sailkatzeaz arduratzen direnak.

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

12.- Ordainketa-pasabidea – Nire ordainketa

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
12.- Ordainketa-pasabidea – Nire ordainketa	Ordainketa elektronikoko seguruko sistema, EAEko administrazio guztientzat eskuragarri dagoena.	<p><i>Herritarrentzat:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> -Lekualdatzeak ezabatzen ditu -Irekia 24/7 -Ordainketa elektronikoko segurua <p><i>Administrazioarentzat:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> -Eskudirua ezabatzen du -Kontabilizazio automatikoa ahalbidetzen du 	Diru-sarreraren kontzeptu guztiek banku-koadernoaren zehaztapen teknikoak bete behar dituzte (57. eta 60. zk.), eta alta emanda egon behar dute Administrazioaren Ordainketa eta Kobrantzen Sistema Integralean (AOKSI).	<p>HAZEDI da EAEko administrazioen ordainketa-pasabidearen azpiegituraren arduraduna.</p> <p>Sailak dira diru-sarreraren kontzeptuak 57. banku-koadernora egokitzeko ardura dutenak. Horrela, Ordainketa eta Kobrantzen Sistema Integralak (AOKSI) diru-sarrerak automatikoki kontabiliza ditzake, eta elektronikoki ordain daitezke Nire Ordainketaren bidez.</p>

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

13.- Dokumentuak egiaztatzeko zerbitzua

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
13.- Dokumentuak egiaztatzeko zerbitzua	Elektronikoki sinatutako dokumentu baten paperezko errepresentazioaren egiazkotasuna eta integritatea egiaztatzeko aukera ematen du. Tramitagunek elektronikoki sinatutako dokumentuei lokalizatzaile bat gehitzeko funtzionaltasuna du.	Administrazioak sortutako dokumentuen paperezko errepresentazioa egiazkoa dela bermatzen du.	Tramitaguneko azpiegituran sortutako lokalizatzaile bat barne hartzen duen dokumentu orok egiazta dezake haren egiazkotasuna eta osotasuna.	HAZEDI da azpiegituraren arduraduna. Sailei dagokie beren dokumentu elektronikoak sortzea eta horietan lokalizatzailea txertatzea, paperean ordezkatzeko.

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

14.- Iragarki-taula elektronikoa

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
14.- Iragarki- taula elektronikoa	<p>Aukera ematen du EAEko Administrazio Orokorrek izapidetzen dituen prozeduretan argitaratzen diren egintza edo dokumentu guztiak kontsultatzeko, bai eta jendaurrean jartzen diren jarduketak eta dokumentuak ere.</p> <p>Araudian erregulatuta badago, prozeduretan ebazpenak edo errekerimenduak jakinarazteko balio du.</p>	<p>Izapideen kudeatzaileak (Tramitagune) iragarki-taula elektronikora bidaltzeko funtzionaltasuna du. Hala, espedientearen izapidetze-fluxuan, taulan argitaratu beharreko izapidetzearen mugarriak definitzen dira.</p> <p>Edukia kontsultatzeko taularako sarbide librea eta doakoa. Operatibo egunean 24 orduz eta urteko egun guztietan.</p>	<p>Tramitaguneraren bidez kudeatutako espediente elektronikoro funtzionaltasun hori dauka.</p>	<p>HAZEDI da iragarki-taula elektronikokoaren azpiegituraren arduraduna.</p> <p>Sailak dira iragarki-taula elektronikokoan argitaratu behar den edukiaren arduradunak.</p>

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

15.- Ahalordeen Erregistro Elektronikoa (AEE)

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
15.- Ahalordeen Erregistro Elektronikoa (AEE)	<p>Pertsona fisikoen eta juridikoen artean borondatezko ordezkapenak inskribatzeko aukera ematen du.</p> <p>Halaber, pertsona fisikoei erakundeen barruan jartzen zaizkien ordezkoak inskribatzeko aukera ematen du, haien izenean jardun dezaten, izan prozedura guztietarako edo prozedura jakin baterako.</p>	<p><i>Herritarrentzat:</i> Ahaldunei baimena emateko aukera ematen du, aurrez aurre nahiz elektronikoki, beren izenean jardun dezaten izapide elektronikoa administratiboetan.</p> <p><i>Administrazioarentzat:</i> -Ahalordeen erregistro batean denbora errealean sartzea, eta, hala, ordezkaritza-sistema horiek dituzten aplikazio informatikoen integrazioa erraztea. Ahalordea askiestea errazten du, dokumentazioa sisteman digitalizatuta dagoelako. Papera pilatzea saihesten du.</p>	Tramitaguneraren bidez kudeatutako espediente elektronikoro orok AEEarekin konektatzeko funtzionaltasun hori dauka.	Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalerako Zuzendaritza (HAZEDI) da Ahalordeen Erregistro Elektronikoen (AEE) azpiegituraren arduraduna.

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

16.- Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
16.- Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa (GFE)	Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa (GFE) gaitutako funtzionarioak jasotzen dituen erregistroa da. Funtzionario horiek identifikazio- eta sinadura-lanak egin ahal izango dituzte interesdunen izenean, bai eta kopia elektronikoa autentikoa igorri ere.	Interesdunek Administrazioarekin elektronikoki harremanak izatea errazten du. Horretarako, funtzionarioak laguntza ematen dio, eta Administrazioaren aurreko prozeduretan identifikatu egiten da eta interesdunen izenean sinatzen du.	Tramitaguneraren bidez kudeatutako espediente elektronikoro <u>GFEarekin</u> konektatzeko funtzionaltasun hori dauka.	HAZEDI da azpiegituraren arduraduna. Zuzenean - Herritarrentzako arreta-zerbitzuko eragileek kudeatuko dituzte herritarrek egindako ordezkari-tza-eskaerak.

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

17.- Postontzi Elektroniko Orokorra

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
17.- Postontzi Elektroniko Orokorra	<p>Edonork —pertsona fisikoa zein juridikoa izan— iradokizunak, kexak eta erreklamazioak aurkez ditzan ahalbidetzen du, Administrazioaren administrazio-zerbitzu eta -unitateen funtzionamenduari buruz.</p> <p>OHARRA: salaketa formalak dagokion prozeduraren bidez izapidetu behar dira, eta elektronikoki identifikatu behar da horretarako.</p>	<p>Edozein iradokizun, kexa edo erreklamazio modu erraz eta arinean aurkezteko aukera ematen du.</p> <p>Ez da identifikazio elektronikorik behar.</p>	<p>Pertsona fisiko edo juridiko orok du egoitza elektronikoan sartzeko aukera, edozein iradokizun, kexa edo erreklamazio aurkezteko.</p>	<p>HAZEDI da azpiegituraren arduraduna.</p> <p>Zuzenean – Herritarrentzako arreta-zerbitzuak postontzitik sartzen diren informazio orokorreko gaiak kudeatzen ditu.</p> <p>Sailak arduratzen dira berariazko kontsultei erantzuteaz.</p>

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

18.- Datuen Bitartekaritza Zerbitzua – NISAE

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
18.- Datuen Bitartekaritza Zerbitzua – NISAE	<p>Administrazioen artean datuak trukatzea ahalbidetzen du. Horrela, Administrazio bakoitzak irispidea errazten du interesdunen inguruan dauzkan datuak gainerako administrazio publikoek eskuratu ahal izan ditzaten, eta zehaztu egiten du zein baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo tekniko behar diren datu horiek segurtasun-, osotasun- eta eskuragarritasun-berme handienekin eskura jartzeko.</p> <p>Eskuragarritasun hori bere eskumeneko prozedurak eta jarduketak izapidetzeko eta ebazteko eskatzen diren datuetara mugatzen du.</p>	<p><i>Herritarrentzat:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> -Sinplifikazioa: ez da eskariarekin batera agiririk erantsi behar. -Denbora eta kostuak aurrezten dira: ez da beharrezkoa administrazio batean ziurtagiriak eskuratu eta beste batera eramatea. <p><i>Administrazioarentzat:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> -Kudeatutako eta bildutako paper-bolumena murrizten du. -Izapideak egiteko erraztasunak ematen ditu. -Datuen kalitatea areagotzen du, saihestu egiten batira faltsutzeak, irakurketa okerrak edo akatsak, organo eskudunak zuzenean egiaztatzen edo kontsultatzen dituelako datuak. 	<p>Sailek Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzarekin (HAZEDI) jarri behar dute harremanetan, datuak lagatzeko baimen-eskaera administrazio lagatzailearekin izapidetzeko.</p>	<p>Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza (HAZEDI) da Datuen Bitartekaritza Zerbitzua kudeatzeko arduraduna.</p> <p>Sailak dira bitartekaritza-plataforman azalduko elkarreragingarritasuneko zerbitzuen baimena eskatzeko ardura dutenak.</p>

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

19.- Dokumentuak segurtasunez digitalizatzeko osagarria

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
19.- Dokumentuak segurtasunez digitalizatzeko osagarria	Osagai hori duten dokumentuak digitalizatzean, kopia autentikoak lortzen dira.	Dokumentu bat eskaneatuz gero, dokumentuaren fotokopia edo kopia sinple bat lortuko da (horrek jatorrizko papera zaintzera behartzen gaitu). Osagarri hori erabiltzen bada, eskaneatzearen bidez dokumentuen kopia autentikoa egin daiteke (digitalizazio segurua egin ostean, jatorrizko dokumentua herritarrei itzultzeko aukera ematen digu).	Tramitagunen integratuta dago.	Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza (HAZEDI) eta EJE dira digitalizazio segurua osagaiaren azpiegituraren arduradunak. Sailak arduratzen dira, beren laguntza teknikoen bidez, herritarrei zuzeneko arreta emateko lanpostuetan osagai horiek instalatzeaz.

Zerbitzu eta azpiegitura komunak, nahitaez erabili beharrekoak

20.- Zerbitzu publikoen erabiltzaileen datu-base korporatiboa

Zerbitzu eskuragarriak	Zertarako balio du?	Abantailak	Nola erabili zerbitzu hau?	Abian jartzearen arduraduna
20.- Zerbitzu Publikoetako Erabiltzaileen Datu Base Korporatiboa (lehen Interesdunen Datu Basea deitua)	<p>Herritarren harremanetarako datu-basea da, eta berbera da zerbitzu eta prozedura guztientzat.</p> <p>Informazio-sistema guztiek erabili behar dute datu-base korporatibo hori, herritar hartzaileen kolektiboa zein den alde batera utzita.</p> <p>Pertsona fisikoen kasuan, baimena esplizitua behar da.</p> <p>Komunikazio eta jakinarazpenen abisuak jasotzeko (posta bidezkoak zein elektronikoak) harremanetarako datuak eta Administrazioarekin aritzeko hizkuntza interesdunek ematen dituzte.</p>	Zerbitzu publiko eta prozedura guztietarako harremanen datu-base komun bat izateak aukera ematen du herritarrekin modu arinagoan elkarreragiteko, eta eguneratuta dauden kontaktuen datuetara sartzeko bermea ematen du.	<p>Platea/Tramitagunen garatutako zerbitzu eta prozedura guztiek integratuta dute Tresna hori.</p> <p>Berezko harremanetarako datuak dituzten saileko informazio-sistemek datu-base korporatibo hori erabili behar dute garatutako web-zerbitzuen bidez.</p>	<p>Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza (HAZEDI) da Zerbitzu Publikoen Erabiltzaileen Datu-base Korporatiboaren azpiegituraren arduraduna.</p> <p>Sailak arduratzen dira beren informazio-sistemak datu-base korporatibo horrekin integratzeaz.</p>

Nahitaez erabili beharreko tresna komunak (91/2023 Dekretua)

(V_2024_01)